

ANTONIO ZAVALA, S. I.



“TXAPEL”

BERTSOLABIA

# «TXAPEL» BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

91

---

### **COLECCION AUSPOA**

**Administración: Plaza de Santa María, 2 - Tolosa  
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio  
de S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

**Ordaindu bearrak:**

**Urte betekoa: 380 pezeta    Atzerrian: 500 pezeta  
Ongilleak: 600    "    Ale bakarra: 50    "**

ANTONIO ZAVALA, S. I.

# TXAPEL BERTSOLARIA

Euxebio Eizmendi

(1893-1969)

AUSPOA LIBURUTEGIA

1969

© **Auspoa Liburutegia**  
**Tolosa (Guipuzcoa)**

**Depósito Legal S. S. 46/70**  
**IZARRA - Peña y Goñi, 13**  
**San Sebastián - Enero 1970**

## ARKIBIDEA

Itz bi ... ..	9
Eusebio Eizmendi "Txapel", Jose Mari Iriondo'k ... ..	12

### TXAPELEN BERTSOAK

Iru doñu ... ..	21
Aotik aora ... ..	24
Bertso Berriak Susteta'ko Andresi jarriak ...	34
"Lenengo Bertsolari-Eguna" (1935/I/20) ...	42
"Bigarren Bertsolari-Eguna" (1936/I/19) ...	46
Santa-eskean ... ..	55
(1950) Argentina'ko lagunari ... ..	60
(1950) Azpeiti'ko gogo-jardunen oroigarritzat	66
(1955) Aita San Inazioaren urte santuko oroi-garri ... ..	70
(1958) Nere iloba ... ..	81
"Nai badezute salbatuko da..." ... ..	85
(1960) Semearen kaliza ... ..	88
"Utzi'azute pakian" ... ..	89
(1963) "Orain eta beti anai" ... ..	90
(1963) "Mutill orren izenian" ... ..	92
Berriro ... ..	95
(1968) Aita Santuari ta Sizilia'ko lur-ikarari	98

### OMENEZ

Illetan ... ..	103
Txapel zanari, Basarrik ... ..	105
"Gure lagun zar biotzekoa" ... ..	109
Iru aldi, Basarrik ... ..	112
Omenaldia ... ..	115

## ITZ BI

Liburu ontan Txapel zanaren bertso-bilduma eskeintzen diogu irakurleari.

Txapel Errezill'en, 1893'garren urtean jaio zan, eta Azpeiti'n 1969'ngoan il zan. Aren bizitzaren txeetasunak urrengo orri-aldeetan arkituko ditu irakurleak, Loiola'ko Jose Mari Iriondo'k emanak.

Orain illabete batzuk, Azpeiti'n Txapeli egin zitzaion omenaldian, onela esan zuan bertso batean bertako Lazkano bertsolariak:

...gaur gauza batek ematen dit nei  
biotz-barrenean miña:  
jai-aldi eder au Euxebiori  
il baño len ez egiña.

Ta guk ere pena aundi bat degu biotzean: liburu au Txapel il baño len ez egiña.

Aspaldiko laguna nuan Txapel. Bertso biltzeari ekin nionean, lenengo laguntzalletatik bat, bera izan nuan. Bereak eta

besterenak, bertso-mordoxka polit bat eman zidan.

Gero, bertso-liburuak argitaratzen ari nintzala, makiña bat bider oroitu nintzan Txapelez, aren liburua ere atera bear nuala.

Bañan ain osasuntsu ta bizkor ikusten bainuan, arekikoak presarik etzuala pentsatzen nuan; oraindik ere urte-mordo batean Txapel geren artean izango genduala uste nuan. Ta, ala, beti gerorako uzten nuan lan ori.

Bañan Iturzaeta'ren liburuari txanda eldu zitzaionean, ura ta Txapel alkar ondotxo ezagutzen zutenak baitziran, bi liburuak, arena eta onena alegia, batera egitea erabaki nuan.

Txapelengana Iturzaeta'ren bertso ta argibide billa joango nintzan, eta, bide batez, bereak ere jasoko nizkion.

Onela, esaera dan bezela, bi txori arri batez botako nituan. Etzegoan gaizki pentsatuta, bañan...

Iturzaeta'ren liburua egin-samartua neukanean, eta Txapelengana laister joateko asmotan nintzala, goiz batez beraren ilberria, beraren *eskela* beltza, irakurri nuan periodikoan...



Sekulan ere etzitzaidan burutik pasa erioak aurea artu bear zidanik, eta txundituta gelditu nintzan.

Txapel zana or izana nuen urte askoan bere bertso ta gauzak noiznai esateko prest, eta ez nizkion artu... Badaki irakurleak zergatik: aren itxurazko osasun eder ta bikañak engañatu nindualako...

Txapelek beste urte betez bizirik iraun izan balu, liburu au askoz mardulago ta ederragoa izango zan.

Il da gero, aren bertsoak andik eta emendik biltzen saiatu gera egiñalean, liburu bat osatzeko lain eskuratu degu, bafian alde ederra noski...

Askotan nere artean pentsatu izan dedana, berriro etorri zitzaidan burura: esku artean darabilkidan bertso-biltze au, presa aundiko lana dala...

Barkatuko al dit Txapel zanak zerutik berandu ibillia...!

A. Z.

## EUSEBIO EIZMENDI «TXAPEL»

Ixillean, nork aterako, gelditu diran bertsolari zaarren lan-bilketa onetan, oraingoan *Txapel* bertsolariari dagokio bere txanda. Il eta andik zazpi illabetera, Donostia'ko C. A. T. alkartearen gogoz, omenaldi bat egin eta andik laster, Eusebio Eizmendi'ren bertsoak biltzeko eta argitaratzeko asmoa dutela esan didate *Auspoa*'tik. Aita Zabala'k, lanak aurreratutak dauzka. Eta, beste asko aurreratzeko, pozarren lagundu diot, nik nezaken neurrian. Eta geiago: itz-aurre bat atariko eskatu didate.

Txapel ondo ere ondo ezagutu nuan azken urteetan. Bañan, bildur naiz, gaurko zeregin au bear bezain zuzen beteko dedan. Eztut gogorik falta. Borondatez, aberats naiz. Baña zer? Zalantz askoren ondoren, Txapelek, gogoaren ixillean, itzegiteko eskatzen.

Bere azken urteetan, ar-eman aundiak nituan berarekin. Beste izenik zezakenik ere ez, eta... Txapel deitu izan nion beti.

(Bere aitonarengandik omen zetorkion e-izen au.) Maixu eta lagun zan neretzat.

Loiola'ko erri-irratian bertsolari gazteen txapelketak urtero antolatu bear-eta, Euxebio izaten genduan gure zuzendari. Argitasunak bear ziranean, berari otsegiten genion; eta an etorko zan, erdi-irripar, adar-jotzalle. Eta, lagun bati eta aita bati oi zaion begiruneaz gañera, profeta bati aiñakoa ere bagenion. Itz gutxi eta zorrotzak izaten bai zituan. Noiz edo noiz zerbait galdetu ezkeru, labur erantzungo zuan...: «Ondo dago!,» edo bestela: «Zergatik ez... onela?»

«Iñoren aurrean txapelik kentzen ez-tuan bertsolaria» deitu eta esan zion bein batez Valverde jaunak, Donosti'ko *El Diario Vasco* egunerokoan. Eta «asmatu dek!» egin genion askok geure buruari. Txapela noiz erazten zuan galdetuta, «Bear danean bakarrik!» erantzun oi zuan.

Epailari bezela, zorrotza eta biguna zan. Gazte baten bertsozko ateraldien aurrean, ondo pentsatu aurrez, etzuan pauso bat ere ematen. Itzegin nai etzuanean, señale txarra...

—Zer, Txapel: zuk zer diozu? Zer irudititu zaizu?

Eta Txapelek:

—Bertsolari ona izateko, bertso geiegi!

Amabietatik aurrerako taberna-bertsolariak, etzitzaizkion batere gogozko. Eta batez ere berari, zirikatzaileak zirikatzaile, etzenion bertso bat aterako onelako tokietan. Iñoiz edo bein, ondo tentatu zuten batean, zera entzun izan nion:

Zirikatziak min ematen du  
askotan, lagun maitia;  
asko sufritu duan pertsonak  
sarri falta du gaitia.  
Gertatu leike orain esana  
gero lotsa izatia...  
Or bertsolari asko daude ta  
oiekin jardun zaitia...

Eta, au kanta orduko, ixilduko zan, eta... «goazen etxera!»

Txapel bertsotan jarri arazteko, nik eza-gutu nuan urteetan, alakoxe *tekla* berexi bat ikututzen jakin bear zan. Gizatasuna eta jatortasuna ikutu ezkerro, laster pizten zan. Eta pizten zanean, ikara ematen duan sakontasun batean erantzungo zuan. Eztarriak etzion askorik laguntzen. Bai ordea adimenak.

Lelengoz radiora kantari ekarri nuen egunean, sinistu ezinda gelditu nintzan. Bere familikoak «Eztek lortuko, ezetzean zegok!» esaten zidaten. Baña, alako batez, «Jarri alkauetia martxan!» esanaz eldu zitzaidan, lantoki bertaraño. Gizona eta bertsolaria zan... eta alakoxe gizon eta bertsolaria ere! Tamalez, egin diogun omena, eta... egin genezaiokena, eztira ezer askorik!

#### NERE KEZKA

Aurretik, larritasun batekin eta poz batekin asi naiz. Eta auek kezka biurtu orain. Irakurle, etzazula pentsa, emen azaltzen diran bertso auek, zuk irakurri eta kanta dezazketzun auek, Txapelen bertsorik aukeratuenak diranik. Ez pentsa Txapelen benetako irudi bat arkitzerik. Etzan bertso-egillea, bertso-kantatzallea baizik, bat-batekoa. Plazakoa eta sagardotegikoa, bere gazte denboran. Berebaitakoa, guk ezagutu genduanean.

Euxebio Eizmendi'ren bertsorik ugari eta onenak, Euskalerriko plazarik apalenetan, edo Santa Agadeko ate-ondoetan gelditu dira. Jasotzea eziñezko dan ainbat bazterretan, alegia. Eta ezintasun orrek, min ematen digu, egia esan.

Azken momentuan estu eta larri arkitu diran soil auek lagundu bearko digute, Txapel jatorraren izen eta irudia gogoratzen. Baña, ez geiago. Zorigaitzak orrelaxe nai izan du.

Aspaldiko gizona etzanez, irakurle askok gogoratuko dituzte, agian, aren bertsoen batzuek, eskatu genituan garaian iñork erantzun ezpazigun ere.

### JAIO TA IL

Errezil'go Antxiturbi-goikoa baserrian jaio zan Euxebio Eizmendi. Txillarramendi ballera. 1893'go auztuak bere erdirañokoa egin ez-egin zuan. Illaren amalaua bai zan. Sei anai-arreba ziran; eta bizi-moduak, Azpeiti'ra erakarri zuan Euxebio, ogi-bide bezela sestagintza zuelarik. Nagusi bakarrarekin, geroago jakin dedanez, berrogei ta bost urte egin zituan lantegi onetan, eta bere merituen alde erretiro soil bat beste *medallarik* gabe.

Bere emazte argi Josefa Iñazia Lazkano'rekin bost seme-alaba izan zituan, bostak bizi diranak.

«Oraindik gogorra zaude!» esaten genionean, onela erantzun oi zigun:

—Ezurretatik oso gogor, bai...

—Baña... osasun ona dezu...

—Bai, bai... Jaunari eskerrak... Amai-ka izango dira, gu baño gazteagoak, eska-sagoa dutenak...

Eta, alaxe zan. Min-bizi gaizto batek azkenengo amabost egunetan zearo jo arazi bazion ere, leenagotik, pizkorra eta osasuntsua zegon gizona. Jan-edariei arretaz kontu egiten zien. Lan eta deskantsu-orduei zer esanik ez. Baña, orrelaxe izaten dira gauzak. Bizitzaren udazkena, egutegiaren udaberriaren erdiz-erdi eldu zitzaion Euxebio jatorrari. 1969'ngo Maiatzaren lelengoa zan. Aurretik juañ ziran bertsolarien mailan, gure begiek ikusten ez-tuten jai-aldia osatzera juañ zan. Beza atsedem!

Zuk, irakurle, pasa ezazu orri au. Eta, gobeltasunari amorrik eman gabe, asi zaite bildu aal izan diran Txapelen bertsoak irakurri edo... kantatzen. Bai. Kantatuta, obe.

*Iriondo'tar Joxe Mari*

# **TXAPELEN BERTSOAK**



## I R U   D O Ñ U

Iru doñu auek puntu luzeko zortzikoa kantatzeko dira, eta Txapelen seme Migelek, Ambrosio Zatarain'ek eta Manuel Yaben'ek idatziak.


Lenengoa, Txapelek geien kantatzen zuana omen da. Ala esan digu bere semeak.



Bigarrena, magnetofon-ari batetik artua degu. Txapelek bein batez Loiola'n kantatu zuan doñu batena da. Bertso ori 89'gn. orri-aldean arkituko du irakurleak.

Ta irugarrena, berriz, Itziar'ko Zubeltzu bertsolariari zor diogu. Doñu onekin Txapelen bertso bat kantatu zigun, 25'gn. orri-aldean daudenetatik aurrena ain zuzen, eta magnetofonoz jaso genion. Txapel eta Zubeltzu alkarren lagun aundiak izan ziran. Gerra aurretik askotan ibilli oi ziran erriz-erri bertsotan alkarrekin.




\* \* \*





\* \* \*



## AOTIK AORAKO BERTSOAK

Atal ontan Txapelek aotik aora kantatu ta entzuleak buruan gorde dituzten bertsoak bildu ditugu.

Era ortan jasotzen diran bertsoak, entzuleari gogozkoenak zaizkionak izan oi dira noski. Onako auek ere olakoxeak izango dira, guk uste.

Agian, oraindik ere olako beste zenbait bertso bildu zitekean. Izango dira, noski, bazterretan Txapelen bertsoaren bat edo beste buruz dakitenak. Naiago genduke bertso oiek ere gure esku izan bagenitu.

Iñork emen ez dagoan Txapelen bertso-rik bialtzen badigu, pozik jasoko degu. Bañan, oiek beste aldi baterako utziaz, orain arte eskuratu ditugunak onako auek dira:

\* \* \*

Txapelek bertso au kantatu zion Zurbeltzu bertsolariari, Azpeiti'ko taberna batean bertsoan ari ziran egun batez:

Fruta politak izaten dira  
mixurka eta mizpira,  
ta biren baja juxtu jotzen du  
bederatzitik zazpira;  
iñoiz gañian egonagatik  
juan liteke azpira,  
lenago zendun nobiya arek  
eman al zizun despeira? (1)

\* \* \*

Gizon bat beti andrea gora ta andrea  
bera aritzen zan, gizon kaxkillen bat nos-  
ki, ta bein batean, aren betiko jardunaz  
nazkatuta, bertso au bota zion Txapelek:

Amaika aldiz daukazu lendik  
zuk gauza ori esanik,  
ez dezazula pentsatu iñork  
sinistatutzen dizunik;  
sekula oraiñ arte ez dezu  
egin izandu gauz onik,  
zure andria ezkondu zan da  
etzuen artu gizonik. (2)

\* \* \*

---

(1) Bertso au Zubeltzuk berak eman zigun. Zubeltzuk irurogei ta amabost urte ditu, ta ezkongai segitzen du...

(2) Zubeltzu bertsolaria, Lasao-aundi, Motriko.

Onako gertaera ta bertso auek, Zubeltzu bertsolariak esan da guk magnetofonoz jaso bezela jarriko ditugu:

«Ni an, Loiola'ra joan da bertsoan ari giñala, izaten dira tentatzalleak, eta bera ere bertsoan afizio aundiko gizon edadeko bat bazan, zelebren ta bromosua, ta Antxumarriren arrebari laguntzera joana izan zala ta tentatzen ari zitzaizkion.

Antxumarriren aditzera izango dezu, aizkolaria, Gipuzkoa'n izan dan gizonik aundiena.

Bera ere bertsoan jarduten zan, da tentatzeko esan ziguten, Antxumarriren arrebari laguntzera nola joan zan da nola ibilli zan; da batek esaten zuen:

—Neri esan ziake, zapatia galdu zitzakola, ari laguntzera joan da!

Nik ere bota nuen zeozer ta danak parriz. Ta Euxebio zan orrek, (3) kantatu zuan:

Zapata galdu eta  
etorri zanian,  
barrendik etzeguen  
sosegu onian;

---

(3) Txapel zanak alegia.

etxera juan eta  
eziñ egonian,  
berriz billa juan zan  
urrengo egunian.

Ta berak ere kantatu zun: beintzat apa-  
ria eman ziola neska orrek eta konforme  
zegoela ta ola.»

\* \* \*

Azpeitia'ko Loiola'n, bertsoan ari zan  
batean, onako bertso au kantatu zuan  
Txapelek. Ayuntamentu berria jarria zan:

Erriko jaunak emen dauzkagu  
aurrian geuri begira,  
jarri berriak dirade eta  
dotore etorri dira;  
utsa litzake aben gustua  
eingo bagendu sikira,  
pamia pranko artuko dute  
ondo portatzen badira. (4)

\* \* \*

Onako au, Txapelek Santa Ageda bezpe-  
ran, Loiarte baserrian, Praixko Uranga

---

(4) Tomas Iturzaeta, Iturzaeta bertsolariaren se-  
mea, Gorostieta, Azpeitia.

etxekojaunari bota ta bere alaba mojak  
buruz jasotako bertsoa da:

Apellidorik eztakit baña  
Prantxisko dezu izena,  
aspalditikan izandu dana  
indar askoko gizona.

\* \* \*

San Juan gabean ere ibilli oi zan Txapel  
koplari bezela Orio aldean. Ortzaika  
etxearen aurrean onela kantatu zuan:

Etxe txiki bat ementxen dago  
kamiyuaren onduan,  
juan dan urtian limosna eder bat  
bertantxen artu genduan. (5)

\* \* \*

Zenbat urte dituzun  
nik nai nuke jakin...

Txapelek:

Bêla enteratuko zera  
nere esanakin:

---

(5) Pello Saikola bertsolaria, —Pedro Aranburu—, len Orio'n, Saikola'n, eta orain Zestua'n bizi dana.



gañez eginda nago  
berroi ta birekin,  
konformatuko zera  
orrenbesterekin. (6)

\* \* \*

Azpeitiya'n periyen  
izaten al zera?

Txapelek:

Laister emango dizut  
orren aditzera:  
lenguan ekarri nuan  
asto bat saltzera,  
bidian galdu eta  
juan nitzan etxera. (7)

\* \* \*

Gerra ondoan edo, mixeriyaren gañean  
ari omen ziran bertsoan, bein batean,  
Basarri ta Txapel.

Arek esan zion etzegoela ain gaizki, ko-  
lore onak zeuzkala beintzat, ta Txapelek  
erantzun zion:

---

(6) Inazio Zubizarreta, Errementeri, Loiola. Az-  
peitia.

(7) Migel Eizmendi, Txapelen semea.

Ur-esne pixkat gosaitarako,  
eguardirako patata,  
arratserako edukitzen det  
beti gosia galanta;  
sardiña zar bi jartzen dizkiate  
bi aldetara jirata;  
siñistu zazu biyotzetikan,  
danak egiyak dira ta. (8)

\* \* \*

Txapel, Zepai ta Uztapide Lekeitio'ra  
bertsotara joanak omen ziran; ura zaar-  
tzen asia, ta auek artean gazteak. Zepai  
ta Uztapide neskatxa batekin izketan asi  
ziran, ta orduan Txapelek bertso au bota  
zuan:

Gazte, nik bear dizut  
gauz bat erakutsi,  
bikote orren esanak  
alde batera utzi;  
Kristoren dotriñari  
al dezula eutsi,  
ez uste dagoala  
diferentzi gutxi  
zerura iyo edo  
inpernura jetxi. (9)

---

(8) Zubeltzu bertsolaria, Lasao-aundi, Deba.

(9) Lazkano bertsolaria, Azpeitia.

\* \* \*

Azpeitia'n, Takolo-Txiki'eneko tabernan,  
kamiñeroai jai-aldiren bat egin zitzaien  
batean, Txapel ere an zan, eta onako ber-  
tso au kantatu omen zuan:

Enuke esan nai zeratenikan  
narratsak edo alperrak,  
bañan merezi dituzte eta  
esan biaizkat ederrak:  
beti geldikan eukitze'ituzte  
atxurak eta palarrak,  
gero astuak jan ditzatela  
bazarretako belarrak (10).

\* \* \*

Bein batez, Txapel eta bere lagunak  
tabernan arkitzen ziran. Gazte batek bur-  
la egin zien... Ta Txapelek, oso zorrotz,  
onela kantatu zion:

Zure ofiziu  
eskandalu jartzen,  
oraindik badakigu  
arruak umiltzen;  
emen oso zaila da  
tontuak abiltzen,

---

(10) Jose Lizaso bertsolaria, Azpeitia.

zu're zartuko zera  
ez bazera iltzen (11).

\* \* \*

«Euskaltzaindiak Ernani'n egindako jai-aldian, biok batean izan giñan (12). Egun guziz, tentatu eta tentatu aritu nintzan. Puntua andik eta puntua emendik. Etzidan erantzunik eman. Azkenean, Azpeiti'ra eldu giñan garaian, kotxetik irteeran, auxe esan nion:

Egun-pasa egin da  
bertso bat ere ez?

Erantzuna:

Zer arraio zabilta  
ni tentatu naiez?  
Goizetik esan dizut  
ezetz eta ezetz,  
zaude ixillik, lagun,  
biontzat mesedez!»

---

(11) Jesus Lopetegi, Agerre, Azpeitia.

Onen antzeko bertsoa, bera ez bada, Auspoa'ren 60'garrenean arki diteke, 33'garren orri-aldean, Olloki bertsolariarena bezela.

(12) Jai-aldi ori, 1962'gn. urteko Abenduaren 9'an izan zan, eta an batera izan ziran auek, Txapel zana eta Jose Mari Iriondo, lerro auek idatzi dituana.

\* \* \*

«Il baño illabete ta erdi leenago, ofi-  
zinara etorri zitzaidan, sarritan etortzen  
zan bezela. Eta, zer moduz zegon galde-  
tu nionean, bertso batean erantzuna  
eman zidan:

Irurogei ta amabost urte  
oraintxe ditut beteak,  
eztit kezkarik ematen neri  
berri batean sartzeak;  
osasunetik osatua naiz,  
zertako ditut besteak?  
Konforme artu bearra dago  
emen bakoitzak bereak» (13).

---

(13) Loiola'ko Jose Mari Iriondo'k idatzia.

## BERTSO BERRIAK SUSTETA'KO ANDRESI JARRIAK

Bertso auek, bertso-paper batetik ditugu. Paper ori, Txapelek berak eman zigun, baita bertsoak berak jarriak zirala esan ere.

Bestela egillea nor zan galdetu bearrean baigifian, mesede ederra egin zigun ori esanaz.

Norbaitek enkargu ori emanda jarri omen zituan.

Apostu-kontuak dira emen gai bezela erabiltzen diranak.

Eztakigu zein urtetakoak diran bertso auek, bañan, gure iritzirako, Txapelek bere gazte denboran jarriak dira.

- 1/ Esan bialitut nola diraden gertatu zaizkun kasuak, uste ezjala etortzen dira olako konpromisuak; lenago bera jardun dan bati jartzera nua bertsuak, beste gauzarik ez du merezi persona eskandalosuak.

2/ Inder aundiko mutikoren bat  
dagola Azkoiti'n Zuzteta'n,  
ori esaten baztarrik baztar  
ibilliya da askotan;  
aitak eta amak etzioten orri  
ondo erakutsi izketan,  
ôindikan eztu ikasi orrek  
gaizki esaten bestetan.

3/ Talentu gutxi dualarikan  
beti da aundi-zalekua,  
apustu zale baldin bada're  
egin biar du naikua;  
milla pezeta oraiñ botata  
bost gutxienez jokua,  
preparatzeko emango diot  
bi illabeteko lekua.

4/ Nik nai nuke sentimentua  
dan bezela aitortzia,  
etzat gustazten benetan esan  
eta bromatan artzia;  
esan bezela pentsatzen badek  
joku ori jokatzia,  
aitzikirikan gero ez jarri,  
emen daukak fetxia.

- 5/ Beste guziak menderatuta  
berak nai luke nagusi,  
orretarako proatutzia  
obe izango da lenbizi;  
kulparik bate ez dadukana  
markatzen beñe ez asi,  
desapio au ematen diot  
Zuztaeta'ko Andresi.
- 6/ Ogei arrua geñian artu  
Azpeiti'ko zezen-plazan,  
ia onena zeñ izaten dan  
jendiak ikusi dezan;  
kuestio auen asieria  
nik e bazekit nola zan,  
ni baño askoz geiago aizala  
proatu gabe ez esan.
- 7/ Ondorenian egingo diagu  
len asitako jokua,  
Martirietara eraman baietz  
larogei kiloko zakua;  
lenago ez netzekian baño  
artu ziot maneju,  
beñere ez nauk izan i bezela  
txotxo buru gabekua (1).

---

(1) Bertso-paperak *txotxo buru gabia* dio; inprentaren okerra izango da; guk uste, *txotxo buru gabekua* bear du, ta ala jarri degu.



- 8/ Aize gaiztuak ibiltzen dira  
zenbaiten buru arruan,  
etzekit ola zertan agoan  
neretzako enkorruan;  
ik esaten dek toki aundia  
detala galtza-zorruan,  
txikiak baño zaiñ fuertiak  
zeuzkat nik auen barruan.
- 9/ Jaso nairikan ibillia zan  
bota genduan siñalia,  
ori're orrek eingo zun bestek  
tontuak izan balia;  
denbora askuan eduki gendun  
izugarrizko pelia,  
arrazoia bere tokian  
beti da laguntzallia.
- 10/ Errespetuan juañ giñan  
gu esandako tokiâ,  
ezer ezin sumatu zuan,  
izketan aren nekia!  
Besterentzako errestua ta  
beretzat nai zuan sakia,  
botatakua nork berak jaso,  
ein zan orduko pakia.

- 11/ Ik esan uan Errezil'dikan  
ekarri nula laguna,  
beste gauzarik etzan ezerre:  
lengo aiskiretasuna;  
orduan alkar ikusitzeko  
izan genduan portuna,  
irekin etziok eiten erreza  
ua ainbeteko gizona.
- 12/ Kontatutzen dek oso aundiak  
dauzkatela belarriak,  
eta gañera okerra eta  
indar gabeko gerriak;  
eztakit nola neurtu baño len  
artu leizkian neurriak,  
bera dan baño baldarragorik  
ez du mantentzen ogiak.
- 13/ Kulparik gabe insulto txarrak  
ematen dizka besteri,  
bere denboran ibillia da  
amaika olako istori;  
utsa sikira izandu balitz  
mutill jator bat berori,  
ijituari asto-zeztotik  
galdutakua diruri.

- 14/ Edozer gauza esaten ai da  
muratu gabe azala,  
esku-txangua insultatutzen  
zertan jardun dek orrela?  
Sinistu dezak ori entzunda  
neuk pena artu nuala,  
pentsatu bêr dek bestiak ere  
aman semiak dirala.
- 15/ Oindikan beñe ez aut ikusi  
galoi aundiak jantzita,  
besteri geizki esatiakin  
ago eder iritzita;  
ark andria eztula sostenituko  
jarria al ao etsita?  
Eure buruai kargu artu iok  
ari pakian utzita.
- 16/ Alrebes samar tokatu zaizkik  
ateratako planuak,  
guziak esan biar zetian  
ôinguak eta lenguak;  
nik aspalditik ikasia nauk  
orrelako pandanguak,  
ik ainbeteko nobia-aukerak  
bazeuzkak esku-txanguak.

17/ Eure pekatuk ixilik gorde  
eta kontatzen bestênak,  
gaur dan egunian asko zeudek  
ori egiten dutenak;  
orain nun dituk garai bateko  
ire andregai-afanak?  
Ik obe ukek baldin bauzkakek  
Josek sobrian dauzkanak.

18/ Bere denboran beti izan da  
errespetorik gabia,  
inozentiak engañatzeko  
orrek bazuan iria;  
oaiñ itxita jarri diote  
andregaitako biria, (2)  
ori artzen dunak ze suertia,  
uzten duanak obia!

19/ Oiñ utzi dion nobia orrek  
Andresi esandakua:  
«Neure senartzat eztit artu nai  
ire moruko kaikua;  
neregandikan libre ago ta  
juan ai nai dekan lekuâ,  
bestia azkar billatutzeko  
eztek siñale bapua.»

---

(2) Bertso-paperak: *andregaitkoa biria*.

20/ Ire ta nere bizi-modua  
nola ez diran berdiñak,  
amenazua neri ematen  
egin dituk alegiñak; (3)  
toki onian gelditu dituk  
ire izketa apañak,  
gusto baldin baek bueltan jarri,  
izango dituk ordañak.

21/ Ogetabatgarren bertsuarekin  
ara nik errematia,  
guzientzako komeni dana  
dago ondo ematia;  
lenago ezerre etzekitenak  
nai zuteken jakitia,  
persona zer dan ezagutzeko  
muestraik onenak oik tia.

---

(3) Bertso-paperak: *ein*.

## LENENGO BERTSOLARI-EGUNA

(1935'ngo Ilbeltzaren 20'an)

Egun orretan, Donostia'n, «Lenengo Bertsolari-eguna» ospatu zan. Bertsolari-txapelketa jator bat izan zan.

Onako bertsolari auek kantatu zuten: Basarri, Zepai, Txirrita, Txapel, Lujanbio, Abarrategi, Bizkai'koa; Telleritxiki, Errenderi'koa; Nekazabal, Zarautz'koa; Lexo; Ordizia'ko Mintegi ta Erauskin Errotaria; Errenderi'ko Juan eta Pello Zabaleta, anaiak; Aiete'ko Sorozabal ta Etxeberria; Bermeo'ko Uriarte; Urnieta'ko Alkain; Itziar'ko Kortatxo; Larralde ta Mattin, Bidasoa'z beste aldekoak.

Epai-maiekoak, onako jaun ouek izan ziran: Jose Ariztimuño apaiza, Toribio Alzaga, Jose Olaizola, Manuel Lecuona apaiza, Jose Zubimendi ta Txomin Olano.

Puntu ta gai-emale, Donostia'ko Jose Zampirain, izengoitiz Txapillo esaten ziotena.

Basarrik eraman zuan txapela.

Ondoren, «Bertsolari-guduak» izenarekin agertu zan liburuan, egun ontako zenbait bertso argitaratu ziran. Txapelek kantatutakoetatik, onako auek:

Lenengo saioan, gai librean:

Pena guziak aldein dirate,  
alai dadukat barrena,  
zer kantatzea asko det baiño  
au esan beat aurrena:  
Ainbeste anai eta arreba  
eldu gera alkarrena,  
au da gauza bat euskaldunaren  
maitasunak dakarrena.

Begiak argi, biotza zabal,  
memoria daukat illun,  
nere moduan besterik iñor  
ez det ikusten nik iñun.  
Guztiak ondo izan gaitezen  
erregutzen det gau ta egun,  
eusko anaiak eta arrebak  
alkar maitatu dezagun.

Bigarren saioan, euskera gai zutela, Txapelek kantatu zuan bertso bat:

Nere biotza arkitutzen da  
alaitasunez betia,  
ikusirikan emen guziak  
daukagun borondatia.  
Orregatikan pentsatu det nik  
alabantzak ematia,  
itzalditxo bat egin gabe gaur  
ez da komeni joatia; (1)  
beti goratzen saia gaitezen  
gure euskera maitia.

Irugarren saioan, puntutan:

Nai dezuan gaiakin  
jarraitu zaiozu...

Nere erantzunakin  
arritu beazu.  
Nola alkar mintzatzen  
ai geran ni ta zu,  
urte askoan orla  
zuk segitu zazu.

---

(1) "Bertsolari'guduak" liburuak *j* guziak *y* biur-  
tzen ditu; emen *yoattia* esaten du, ez *joatia*. Txapelek  
ez baitzuan orrela esango, guk *j* jarri degu aldi gu-  
zietan. Beingoan esatearekin, naikoa izango da.



Ez nuan nik beiñere  
orlakorik uste...

Entzulari maiteak,  
fijatu zaitezte:  
Goizetik arkitzen naiz  
gaur ni oso triste,  
bazkaltzera juatea  
obe degu laiste.

## BIGARREN BERTSOLARI-EGUNA

(1936'ngo Ilbeltzaren 19'an)

Egun ontan kantatutako bertsoak ere, «Bertsolari-guduak» liburuan argitaratu ziran. Au ere, bertsolari-txapelketa jator bat izan zan.

Aldi ontan, Basarri izan zan puntu ta gai-emale.

Epai-maiekoak, onako jaun auek izan ziran: Jose Ariztimuño apaiz jauna, Toribio Alzaga, Leizaola, Jose Olaizola, Manuel Lekuona apaiz jauna ta Basarri.

Amar bertsolarik kantatu zuten: Zepai, Errezil'koa; Dargaitz, Otsondo'koa; Etxeberria, Andoain'goa; Harriet, Aldude'koa; Uztapide, Zestua'koa; Lujanbio, Errenderi'koa; Mutuberria, Elzaburu'koa; Txapel; Iriarte, Irurita'koa, ta Txirrita.

Txapela Txirritak eramán zuan; Uztapide, bigarren gelditu zan; ta Zepai, irugarren.

\* \* \*

Bigarren saioan, Basarrik onako gai au jarri zien bertsolariai: «Gerra zitalen ondoren txarrak».

Txandaka bertso bana kantatuz, iruna bota zituzten. Txapelenak onako auek izan ziran:

Negar-malkuak saltatzen zaizkit  
gauza oiek ikusita,  
euskaldun askok kanpoetara  
egiten dute bixita.  
Kulparik gabe amaika seme  
gelditzen dira an ilta,  
iñola ere karrera onik  
ez dute irabazita,  
esku onetan gelditzen dira  
amak semeak azita. (1)

Au ere esan egin bear det  
agoa bete-betian:  
Jesus maitea serbitutzen det  
berrogei ta bi urtian.  
Ez det pentsatzen izango danik  
iñorentzako kaltian,  
oitura zarrai jarraitutzera  
ea saiatu gaitian,  
geren bizitza igarotzeko  
Jesusen borondatian.

---

(1) "Bertsolari-guduak" liburuak *ama semeak yarrita*; Txapelek etzuan ola esango; or goien jarri degun bezela esango zuan, gure ustetan.

Bi gauza dira diperentiak  
txuria eta gorria,  
bear bezela artu biaiogu  
gauza aueri neurria.  
Beste lan gabe itzegitera  
nola nagon etorria,  
kulparik gabe gerrâ juatia  
ori da tamalgarria,  
gauza ederrena emen daukagu  
munduan Euskalerra.

\* \* \*

Irugarren saioan, txandaka puntutan  
jardun ziran. Txapelek onako auek kan-  
tatu zituan:

*Basarrik:*

Txapel izenarekin  
zera ezaguna...

*Txapelek:*

Neri gustatutzen zait  
olako laguna;  
ondo pentsatutzen det  
gau eta eguna,  
auxen da beti guri  
konbeni zaiguna.

B. Euskeraren zuatzak  
zuek zeratela...

T. Itzegin bear degu  
nola edo ala.  
Gauza onik guretzat  
ez dago bestela,  
aitortzen dizut orain  
maite zaituela.

B. Mai-ingurun jarrita  
bertso ta jatena...

T. Ni ere etorri naiz  
aiskide batena.  
Diferentiak dira  
poza eta pena,  
ondo bukatu nai det  
asitako lana.

B. Ementxe gaude danok  
zuri entzuteko...

T. Badaukat nik gogo  
zerbait esateko.  
Ezer gutxi palta det  
ona izateko,  
apetitua daukat  
bazkaitâ joateko.

B. Guziok bat eginda  
bertsoak goraldtu...

T. Abuan izan eta  
nik ezin umildu.  
Mandatu zarra dezu,  
biar det bialdu,  
gure oitura ona  
ez dedien galdu.

\* \* \*

Laugarren saioan binaka kantatu zuten; lenengo, Zepai ta Txirritak. Auen bertsoak argitaratuak ditugu *Auspoa*'ren 18-19'garrenean, 227'gn. orri-aldean. Zepai uztargille ta Txirrita itzai izan ziran.

Txapelek irugarren txandan kantatu zuan, Andoain'go Etxeberria'rekin. Ura ikazkin, ta au errotari. Ara emen bertsoak:

*Etxeberria:*

Nere lanari ekin biaiot  
albiste auxe artzian,  
nere denboran ez da izandu  
mingaiña oso atzian.  
Lenago ere oiturik nago  
ain jardun erantzunian;  
errotaria naiz ni izatez,  
egite au eman zian,  
ta aiskide batek zaku iriña  
diru gabe eramán zian.

*Txapel:*

Ni ikazkintzat juzgatu naute,  
zu berriz errotaria,  
gusto badezu entzun zaidazu,  
esango dizut egia:  
tristurarikan zuk ez daukazu,  
ain zaude gizon alaia,  
txintxotasuna utzita zaude,  
tranpa-zale ugaria,  
kontzientzia garbitutzeko  
badadukazu premia.

E. Ni errotari langintzan naiz ta  
Txapel ori ikazkiña,  
alare ongi izaten beti  
saiatzen naiz alegiña.

Ordaindu gabe eramán ziran  
lengo batian iriña,  
pagatutzeko konturik ez du,  
aitzeki ugari baiña,  
etzenduke ez ori egingo  
zintzua izan baziña.

T. Zure aldian beti izan naiz  
oso biotzez biguña,  
lagun guziri ondo laguntzen  
egiten det alegiña.  
Zuk or daukazun jenero dana  
neretzat ez da berdiña,  
ongilleari gaizki egiteko  
zuk beti daukazun griña:  
iriñez partez jartzen didazu  
edozer gauza zikiña.

E. Nere errotan ez da sartutzen  
garien partez artua,  
Txapelen gezur ori daukagu  
lotsik gabe ausartua.  
Gaizki zuk esan, ez jakin eta,  
gezurra zuk agertua,  
gaizki esana biltzera berriz  
zugandik naiz beartua,  
edo bestela zeure otsona  
ez dezu ipiñi edertua.

T. Errota ontako nagusi jauna  
nola zeraden zerorri,  
irin zatarrak saltzen dizkatzu  
deskuidatutzen danari,  
Len ere nago ikasia ta  
etzait zuria komeni,  
pixuentzako ona dala ta  
zikiña bota iriñari,  
zazpigarrengo mandamentuak  
ez du agintzen gauz ori.

E. Iriña eraman nere etxetik,  
ordaiñez ekarri ikatza,  
orren kopeta lotsagabea,  
azala berriz du latza.  
Bere auera nik aurreregi  
ez naike sartu beatza,  
langintz arlote batean dabil  
ta ezin izan aberatsa;  
pagoa eskatu, gaztaiña ekarri,  
bide okerretik zabilta.



- T. Au ere esan bear nizuke,  
ortara ari naiz bertsuari,  
nere langintzan aritutzen naiz  
satisfazio osuan.  
Bere aldera itzegiten det  
bera baidaukat goguan,  
gauz onegatik inbusteria  
lengoetan bazenduan,  
itza ederrak mingaiñez baño  
kontzientzia auzuan.
- E. Zaku-ikatza ekartzekua  
aspaldi dan luzaroan,  
itza eman bai gure etxera  
ez da jun oraindaiñoan.  
Uste al dezu, ai!, ez dedala  
nik edukiko gogoan?  
Artutzen det, bai, buruan garbi  
zeñek zer eraman duan,  
gure errota txarra baldin bâ  
nai dezunengana jua.
- T. Zer kontatua pranko badaukat  
esplikatu al banitza,  
Etxeberria, entzun biazu  
orain dijuazun itza:  
ez nuben uste zendubenikan  
orren jenio zipotza,  
gaizki egiten daramakizu  
oraindaiñoako bizitza,  
zuzendu zaitez fede onean  
biotzetik bazabiltza.

E. Irin ederrik egitekotan  
nik bueltatzen det arria,  
zintzo ta zuzen daukat etxea,  
oso egoki jarria.  
Ikazkin batek saldu bear nau,  
kiebra jo det orain ia;  
irin zakuaz etxea ustu,  
eraman detan guzia,  
eta alare itzegiteko  
onek badu ausardia.

T. Bein bear zun da onek ôin ere  
gezur galanta esan du,  
len egindako deskuido danak  
orain nai ditu zuzendu.  
Onek esanda itz sakonikan  
nik ez det entzun izandu,  
besten pekatuk konpesatuta  
zeure danak almazendu,  
garbi zenduke kontzientzia  
len ongi egin bazendu.

## SANTA ESKEAN

Onako auek, Santa Ageda bezperan kantatzeko jarriak dira.

Bertso batzuk lau puntukoak dira, ta besteak bikoak, Santa-eskeko koplak izan oi diran bezela.

Eskuz idatzitako orri batean arkitu ditugu. Orri ori Txapelek berak eman zingun, eta, orain jakin degunez, beraren suia dan Inazio Agirre'k idatzia da.

Doñua, Azpeiti'ko errian Santa Agedako koplak kantatzeko erabiltzen dana da. Txapelen seme dan Migel Eizmendi apaiz jaunak ezarri du paperean.



- 1/ Mutill gazteak alkar artuta  
ementxen gera atian,  
etxe ontara etorri gera  
guzizko borondatian;  
ezertxo ere ez degu esan nai  
lagun urkoan kaltian,  
danakikua ondo kunplitzen  
ia saiatu gaitian.
  
- 2/ Erretirua noiz ez dakigu,  
asera degu goizian,  
gure aurreko aitonak ere  
olaxe ibilli oi zian;  
geure ustetan ez gera asi  
aiñ modu aldrebesian,  
oitura zarra alperrikan da  
iñor ibilli-ezian.
  
- 3/ Gaur goizetikan Santa Ageda  
guk artu degu laguntzat,  
eguna ondo pasatutzeko  
konbeni dana guretzat.
  
- 4/ Santa Agedak pasatu zuban  
munduban bajiña't pena,  
judu gaiztuak kendu nairikan  
berak zaukan siñismena.

- 5/ Jaungoikoaren agindurikan  
arek etzuban ukatu,  
judu gaiztuak nai zutenikan  
ordun etzuten logratu.
- 6/ Borrego aiek ilko zutela  
agindu ziotenian,  
len baño ere primiago zan  
andik urrengo egunian.
- 7/ Lantza gogorrez zulatu zuten  
gorrotuaren indarrez,  
ixtan batian gorputz guztiya  
estaltzeraño dolorez.
- 8/ Aren bizitza gogoratzian  
bat bigunduta jartzen da,  
oraiñ gloriyak gozatzen dago  
ilda zerura juan zan da.
- 9/ Nagusi jauna, zugana nator  
satisfaziyo osuan,  
oni're zerbait esan beiogu  
etorri geran kasuan;  
asarrerikan baterik gabe,  
aiñ modu kuriosuan,  
gurekiñ ondo portatzen bada  
jakiñgo dute auzuan.

- 10/ Oraiñ zugana abiyatu naiz,  
etxeko-andra kuttuna,  
kuadrilla bat badago emen  
zu asko maite zaituna.
- 11/ Aldez aurretik jakiñda gauden  
ematzallea zerala,  
ia gurekin portatzen zeran  
len askorekin bezela.
- 12/ Denbora luze samar dijua,  
laister nai nuke abiya,  
limosna ori ematera ezkeroz  
ôiñtze dezute garaya.
- 13/ Lenago ere onelakuak  
pasako ziran prankotan,  
nik orrenbeste ez nuban kantauko  
debalde izatekotan.
- 14/ Gure bertsuak entzuten oiek  
barrendik daure gustora,  
ez gera etorri abildadiak  
debalde erakustera.

15/ Eskarrik asko limosnagatik,  
oraiñ emendik baguaz,  
beste batean obetuago  
kantauko degu mentuaz. (1)

---

(1) Neurrian juxtu jartzeagatik eta kopiatzallearen utsegiteren bat izango zalakoan, bertsoai ikutu batzuk egin dizkiegu. Berez onela zegoan Txapelek emandako eskuz idatzian: 1/6: lagun urkoaren kaltian; 4/2: munduban bagiña bat pena; 11/4: len askokin bezela; 13/3: nik orrenbeste ez nuban kantatuko; ontan *kantauko* bear duala nabarmen dago, 15/5'an ere ola baitago.

(1950)

## ARGENTINA'KO LAGUNARI

Amabi bertso auek eskuz eskribituta-ko orri batetik artu ditugu. Txapelek berak eman zigun orri ori. Gero jakin degunez, semeak, D. Migel Eizmendi apaiz jaunak, kopiatu zizkion.

Argentina'ko lagun bati egindako eskutitza dira.

Lagun ori Martzelino Zubimendi da; Txapel baño gazteagoa, ta Etumeta ondoan dagon Zaku baserrikoa. Txapel-en jaiotetxea ere Etumeta'tik alde xamarrean da.

Gazte denboran alkarren lagunak izanak, zartzaroan aztu ta oztu gabe zeukaten lengo adiskidetasuna, bata bestea-rengandik urruti bizi izanagatik.

Txapelek etortzeko esaten dio bere lagun oni. Bañan Martzelinok ez du oraindik orrela egin; Argentina'n jarraitzen du.



Bostgarren bertsoan «Ai, Martintxo, goguan artu...» esaten dio. Ez dakigu zergatik asieran Martzelino zana orain Martintxo dan. Ala ere gauzak, dauden bezela utzi nai izan ditugu, emen oar au jarrita.

1/ Egun batian esan zidazun  
bialdutzeko bertsuak,  
aditutzeko desiaturik  
zegundetela batzuak;  
goguan ondo artu nituan  
zure izketa gozuak,  
alkarrentzako nola geraren  
persona kariñosuak.

2/ Zure izena Marzelino da,  
apellidua Zubimendi,  
denbora pixkat izan biar du  
juan ziñala emendik;  
zuenganako maitetasunik  
etzait paltatzen barrendik,  
desiautzen det berriz ere alkar  
ikusitzia oraiñdik.

3/ Lenbizi emendik jua ziñala  
ia berrogei bet urte,  
eta geroztik bizi gerade  
alkarrendandik aparte;  
bitarte ontan ikusi degu  
bajiñatxo bat gizarte,  
zurekin asko akordatzen naiz,  
oroituko naiz ill arte.

4/ Euskalerritik jua ziñaden  
kanpo oiek ikustera,  
alde oietan segiko dezu  
toki batetik bestera;  
denbora piskat or igaro ta  
etorri zaitez ostera,  
jaio ziñaden lur maite ontan  
zeure ezurak uster.

5/ Ai, Martintxo, goguan artu  
nik emen esandakua:  
mundu ontako gure bizitza  
ez dago luzarokua;  
oitura on bat zuk bazenduan  
gaztetan artutakua,  
orreatikan danaz gaiñetik  
maite bear degu Jainkua.

6/ Mundu ontatik jua biarra  
daukagu izugarriya,  
Jesus maitiak guzientzako  
ipiñi zuan neurriya;  
gorputza gaizki dabillenan  
animak dauka larriya,  
nork bere paltaz galdutzen dunak  
zer gauza penagarriya!

7/ Aita zuria Iñazio zan,  
ama zan, berriz, Kataliñ,  
mundu onetan onak izena,  
etzuten asko utsegiñ;  
pameli ondo edukatutzen  
egiñak zenbat alegiñ,  
erreza zazu aien anima  
zeruan gertatu dediñ.

8/ Zeu bezelaxe onak izandu  
ziran zure gurasuak,  
garai batian zuregatican  
egin zituzten pausuak;  
zu ikusteko pozez zorutzen  
zabaldurikan besuak,  
laztan goxorik eman zizuten  
aita ta ama gaixuak.

- 9/ Gaztetan ere ala nitzan da  
beti bizi naiz pobrezan,  
aberasteko suerterikan  
beñere ez det nik izan;  
au argatikan esaten dizut  
jendiak ikasi dezan,  
ni orgulloso nabillenikan  
iñork sinistu eztezan.
- 10/ Jaiotzatikan guziok degu  
aberastasun berdiña,  
geroztik dago diperentziya  
izugarriya egiña;  
asko daukanak ez daukanari  
eman biao propiña,  
iñor apenas errukitzen da,  
komeni litzeke baiña.
- 11/ Alkarrei ezin oraiñ itzegiñ  
nola gauden apartian,  
orreatikan bialtzen dizut  
auek oraingo kartian;  
lendabiziko erakutsita  
zeure pamili tartian,  
gusto badezu gero zabaldu  
Argentina'ko partian.

12/ Bukatutzeko au esan bear  
dizut azken-azkenian,  
ia itz auek artzen dituzun  
biotzaren barrenian:  
nik akordua zugana badet  
beti edo geienian,  
egun eder bat pasa b̄r degu  
urrena zatozenian. (1)

1950/IV/9  
Pazko-eguna  
Eusebio Eizmendi  
«Txapel»

---

(1) Sail ontatik zuzendu ditugunak, eskuz idatzian zeuden bezela: 3/1: Lenbizi emendik jun ziñala; 5/7: orrengatik danaz gaiñetik; 6/3: Jesus maitiak guziontzat; 7/7: erreza zazu ain animak; 7/8: zeruan gerta dediñ; 9/8: iñork sinistu ez dezan; 4/6: etorri zaitezte osterara; 7/3: izena; 7/4: etzuben.

## AZPEITI'KO GOGO-JARDUNEN OROIGARRITZAT

Liburu au prestatzen asi giñanean, Loliola'ko erri-irradiak, iñork Txapelen bertsozik buruz edo paperean bazuan, arrenda arren bialtzeko eskatu zuan.

Azpeiti'ko eliz-kaletik onako auek bializituan Josefa Unanue'k. Milla esker berari.

Orduan konturatu giñan bertso auek lendik ere argitaratuak zirala, Tolosa'ko «Anaitasuna» aldizkarian, 74'garren zenbakian, 1950'ngo Garagarrillan.

Bañan, firma bezela, au bakarrik zuten: «Azpeiti'ko Irugarren bat». Ta ezin orrekin bakarrik ezagutu egillea nor zan...

Urte artan, gogo-jardunak eman zien Aita Agirretxe prantziskotarrak Azpeiti'ko irugarrendarrai. Ta oroigarriztat bertso auek jarri zituan Txapelek.

1/ Aiskide batek agindu zidan  
bertso batzuek jartzeko  
aurten Azpeiti'n egin diraden  
gogo-jardunarentzako; (1)  
iruditzen zait gauza bikañak  
zirala askorentzako,  
leno sartuta zegoan gaitza  
animatikan kentzeko.

2/ Martxo-illaren amabin asi  
ginduzen gogo-jardunak,  
eleiza baten bildu giñaden  
gu millaka euskaldunak;  
guziok pozez jarri ginduan  
Aita Agirretxe jaun onak,  
bera ona zala bagendekigun,  
orain baditu lagunak.

3/ Premian asko egongo giñan  
neu aurrenengo naizela,  
an asi degun bizitza onek  
ondo jarraitu dezala;  
esaten zigun salbaziorik  
eztaukagula bestela,  
lagun urkoa maite izateko  
geron burua bezela.

---

(1) "Anaitasuna" aldizkarian: *gogo-jarduntxoren-  
tzako*.

- 4/ Iñori ere ez diot entzun  
gaizki ibilli diranik,  
nik ez det uste oiek eginda  
iñor penatan dagonik;  
negar-malkoak zerizkiela (2)  
asko ikusi ditut nik,  
nai dan guztiak eztu izaten  
orrelako maitasunik.
- 5/ Gaur Azpeitia'n milla bat pasa  
gera irugarrendarrak,  
al dan ondona bete nai'tugu  
dauzkagun eginbearrak,  
mundu onetan pagatutzeko  
gure pekatuen zorrak,  
azken orduan Jaunarengandik  
artu ditzagun eskerrak.
- 6/ Don Lorentzo jaun ori daukagu  
gure ontan direttore,  
ori ainbateko gizonik ez da  
gutzat izango naita're;  
alakoxea tokatuko da,  
ba, onenera jota're, (3)  
jaun orregatik iñoi ez diot  
kejarik entzun batere.

---

(2) "Anaitasuna" aldizkarian: *negar zerizkiela*.

(3) "Anaitasuna" aldizkarian: *naita ere ta jota ere*.



7/ Obra on asko egiten ai da  
Agirretxe'ren aginduz,  
obe genduke oien esanak  
ondo beteko bagiñuz;  
oso izlari jatorrak daude,  
abillak dirade buruz,  
ala laguntzen diguten arten  
bizi giñazke soseguz.

8/ Zortzi egunez Aita Agirretxe  
gure artean jardun da,  
biotz guztiak samurtu zaizku  
ainbeste egi entzunda;  
emengo lanak bukatutzean  
Arantzazu'ra joan da,  
Aita Santuren bendezioa  
guri danori emanda.

(1955)

## AITA SAN INAZIOREN URTE SANTUKO OROIGARRI

1956'garren urtean, San Inazio il zane-ko lareungarren urtea bete zan. Ori zala-ta, elizkizun ta festa aundiak egin ziran Loiola'n. Txapelek bertso auek jarri zituan jaialdi oietarako.

Bañan orduan ez, eta, noizbait bada ere, orain eldu zaie argitaratu-ordua. Eskuz idatzita egon dira gaur arte.

Bertso auetan ez da San Inazioren bizitza osoa kontatzen; beste zera guziak alde bat utzita, Paris'tik Azpeiti'ra nola etorri zan eta emen zer bizi-modu egin zuan adierazten zaigu.

Paris'tik Azpeitiraño'ko ibillaldi ontan, San Inazio Etumeta'tik barrena igaro zan; Txapelen jaiotetxetik gertu xamar ibilli zan, beraz.

1/Lengo egun baten Aita batekin  
izketan aritu nitzan,  
galdetzen ziran ia ontarako  
animatzen ote nitzan:  
bertso batzuek ipiñitzeko  
San Iñazioren bizitzan,  
aren berriak zabalduzko  
irian nola zebiltzan.

2/ Erantzun nion nik Aita orri:  
«Egingo det alegiña,  
biar bezela ezin nitzake  
gauzek esplikatu baña;  
gazte denboran estudioan  
denbora gutxi egiña,  
orregatikan gertatutzen naiz  
talentuz gizon ariña.»

3/ Guretzat ondo diraden gauzak  
erakutsitzen dituzte,  
dudarik gabe itxaropenak  
guregana badatozte;  
San Iñaziori astera nua  
laguntasunaren eske,  
arrek guzia balezake ta  
egingo al dit oinbeste!

4/ Milla ta bost eun eta gañera  
ogei ta amabosko urtian,  
Iñigo gaixorik gertatutzen zan  
Alemania'ko partian; (1)  
osahunakin zebilelako  
alako desuertian,  
sendagillea etzan kontentu  
andik bialdu artian.

5/ Sendagilleak agindu zion  
alde egin biar zuala,  
gaitz gogor batek mende artzeko  
arriskuan zeguala;  
arentzako zer gauza zan ona  
erakutsiko ziola:  
bere erriko aize goxuak  
sendatuko zukiela.

6/ Sendagilleak alde egiteko  
agindu ziotenian,  
andikan laister abiatu zan  
zalditxo baten gañian;  
Frantziya eta bere lurreko  
mugan pasatu zanian,  
ze alaitasun nabaituko zan  
Iñigoren barrunian!

---

(1) Txeetasun ontan ez dator Txapel ain zuzen;  
San Inazio Frantzia'n gaixotu zan, Paris'en; ez Ale-  
mania'n.

7/ Paris ondotik España aldera  
abiatu zan Martxuan,  
galde zioten andik onera  
zenbat denbora bêr zuan;  
biraje ura ala egiteko  
anima bai al zuan,  
lagunik gabe ia bakarrik  
etorri biar al zuan.

8/ Andik onuntza bazetorren da  
Donostia'ra birian  
bi gizon ondo armatutako  
jarri zitzaizkon parian;  
lapurren batzuk ote ziraden  
zegon bildurrak aidian,  
laguntasuna egin zioten  
biar zan umildadian.

9/ Donostia'tik gora igo ta  
Astiasu'ko Zaraté'n  
bertara iritxi baño lenago  
batzuek ikusi zuten;  
«Orroko gizon ori zein degu?»  
batak besteai esaten,  
ezagutzia gertatu balitz  
kaso egingo zioten.

- 10/ Zarate'n gora pasatu eta  
urrena Andazarreta'n;  
biraje ortan iritxiko zan  
bakiña bat baztarretan;  
aren orduko pauso guztiak  
ziraden asmo onetan;  
Iturriotz'a eldu omen zan  
illuntzeko zortziretan.
- 11/ Etzuten uste alakorikan  
an gertatu biar zanik,  
an zeuden danak jarri ziraden  
geldirik eziñ egonik;  
ikusi arren ezta askotan  
ezagututzen personik,  
ango andreak etzuan uste  
Iñigo euskalduna zanik.
- 12/ Etxeko-andreai asi zitzaion  
gabeko ostatu eske,  
biotz onakin erantzun zion:  
«Izango al da oinbeste!  
Ate onduan or egon gabe  
barrena sartu zaitezte,  
gure etxian zer toki dagon  
ikusitzera atozte!»

13/ Iturriotz'a gizon bat juan zan  
Loiola'ko Egibar'tik,  
ia Iñigo an ote zegon  
seguru jakiteagatik;  
itzegitera atrebitzen ez,  
begira ate-txulotik,  
esne goxua eranak biak  
ama baten bularretik.

14/ Ikusitzian pozaren pozez  
saltau zitzaizken malkuak,  
alkarrentzako biak ziraden  
borondate aundikuak;  
notizi ori zabaldu nai zun  
Juan Egibar'kuak,  
guziak laister jakinda ziran  
Loiola ingurukuak.

15/ Gau ura ala an igaro ta  
goizian andik mogira,  
arriturikan egondu ziran  
Iñaziori begira;  
Etumeta'tik Lasao'ra jetxi,  
gero andik Azpeiti'ra,  
jaio zanian bataiatuta  
ipiñi zuten tokira.

- 16/ Andik urrengo egon-aldiya  
egin zuan Madalena'n,  
aldez aurretik an gelditzeko  
desio ura zeraman;  
ikusitzera juandakua  
bakiñ bat jente bazan an,  
baño zertâko zeguanikan  
guztiak ezin antzeman.
- 17/ Bere barrengo desio onak  
jartzen zitun agiriyan,  
lagundu ere egiten zuan  
biartutako garayan;  
ikusten zitun an zeuden asko  
nola zeuden premiyan,  
gogo-jardunak eman zituan  
Madalena'n gaxotegiyan.
- 18/ Aindu bezela orduan eman  
zituan gogo-jardunak,  
bildurrik gabe esaten zuten  
«Geu giñan bear gendunak!»  
Lo asko egin gabe pasa zituzten  
an gauak eta egunak,  
orduan ere fede sutsua  
bazeukaten euskaldunak.



19/ Predikatutzen aritutzen zan  
arbola baten gañetik,  
entzunlariak juaten zitzaizkan  
gertu eta urrutitik;  
zer egiteko gendukan emen  
esaten zuan gogotik,  
erruki pixkat edukitzeko  
lagun projimuagatik.

20/ Negonek ere siñistutzen det  
egia esaten zuala,  
geuretzat ere itxaropenik  
ezkendukake bestela;  
aitormen ori askok zeukaten  
gauza bidezkoa zala:  
lagun urkua maitatutzeko  
geure burua bezela.

21/ Jaio eta urte batzua arte  
Loiola'n bertan bizi zan,  
gero ortikan aldegiñ eta  
urrutian ibilli zan;  
ostera onuntz etorri eta  
emen eskian asi zan,  
kalerik-kale etxerik-etxe  
eskaletxo baten gisan.

22/ Anaia zarrak esaten zion:  
«Baña, zer zabiltz, Iñigo?  
Zu emen onela ikustiâkin  
penaz sufritutzen nago;  
ez al dakizu jauregi batên  
egon ziñala lenago?  
Nai dezunian jua zaitez ta  
lengo tokiya an dago!»

23/ Eta Iñigok esaten zion:  
«Etzait tokatzen lujorik,  
zure etxian nola ez dagon  
nêtzat moduko lekurik;  
ni emen ola nabillelako  
zuk ez daukazu kulparik,  
ontaratzeko ez da izaten  
biarra bezelakorik.»

24/ Iñigorena joaten ziraden  
bakiñatxo bat persona,  
aguro asko antzemanikan  
borondatia zeukana;  
biartsuari partitzen zien  
eskian biltzen zuana,  
gaur dan eunian zeñ ote dago (2)  
ori egiten duana?

---

(2) Txapelen orrietan: *egunian*.

- 25/ Gazte denboran izugarritzko  
lujuan ibiltzen zan da,  
ta gero ere arropa aiek  
bere mendian zeuzkan da,  
arritutzeko moduko gauza  
ordun ere egiñ zuan da:  
berak zakuzko trajia jantzi  
onak besteri emanda.
- 26/ Munduan gutxi izango ziran  
ura beziñ indartsuak,  
argitasuna ematen zion  
gure Jaungoiko altsuak;  
batek ainbeste nola ziteken  
esaten zuten batzuak;  
laguntza asko egiñ lezake  
persona errukitsuak.
- 27/ Otoi goxuak egiten zitun  
Olatz'ko Amaren aurrian,  
zikindutzeko bildurrik gabe  
belaunbikatu lurrian;  
aren gogoa nunbait ala zan  
oso modu xamurrian,  
sinismenaren berotasunak  
biotza lertu bêrrian.

28/ Lan oiek ola egiñ ondoren  
Naparrua'ra juan zan,  
an ere Iñigo ikusitzeko  
desioz nola zebiltzan;  
ementxe ere ostera onuntz  
buelatzeko esperantzan,  
azken agurra ordun eginda  
geiago etorri etzan.

29/ Arantzazu'ko Amarengana  
egiten zuan bixita,  
lur-bide ontako ontasun danak  
alde batera utzita;  
an goi aldeko izateari  
ondo zeuan iritzita,  
bere ondora eraman zuan  
Amak zerutik jetxita.

30/ Laregun urte igaro dira  
Aita Iñigo il zala,  
mundu onetan izandakua  
oso gizon serbitzala;  
esaten zuan zeruratzeko  
lan asko egiñ bêr zala,  
komeni bada bere ondora  
gu ere eraman gaitzala!

1955'ko Urrillaren 30'an  
Kristo Errege eguna.  
Azpeitia.

(1958)

## NERE ILLOBA

Txapelen illoba bat, Jose Mari Ibarguren, errezildarra, Txina'n urte asko mihiolari zeramazkian. Bertso auek karta bezela bialdu zizkion emendik ara. Orain Guatemala'n bizi da.

- 1/ Gau eta egun paltatu gabe  
oroitutzen naiz zugati,  
baño ez dakit olakorikan  
zuk îten dezun nigati;  
zu nun ote ziñan jakin nairikan  
galdezka nebillen beti,  
nik uste nuan izkutatua  
ziñala mundu ontati.
  
- 2/ Zure jaiotza nola izan zan  
mendi-baserri batian,  
lanian bertan segitu zendun  
ia ogei bat urtian;  
eta geroztik ibilli zera  
emendikan apartian,  
jaiotetxiaz akorda zaitez  
bizi zeraden artian.

3/ Mutil koskorra ziñan artian  
ibiltzen ziñan artzantzan,  
zure orduko arreta onari  
begira egoten nitzan;  
geroko martxa ipintziâtik  
aita ta ama zebiltzan,  
bizi-morua ateratzeko  
gauza biarra ez al zan?

4/ Zu oraindikan emen zabilta,  
ill zitzaitzun gurasuak,  
beaien alde egin itzatzu  
otoi edo errezuak;  
gau eta egun zuregatikan  
eiten zituzten pausuak,  
laztan gozorik eman zizuten  
aita ta ama gaixuak.

5/ Gazte ziñala sartu ziñaden  
zu Jesusen Lagundian,  
itxura danez zeure anima  
zeunden zeruratu naian;  
geiago ere ola sartuak  
badituzu pamilian,  
ori eitia gauza ona da  
gogua dagon garaian.

- 6/ Lendabiziko Loiola'n bertan  
egin zenduen sarrera,  
denbora pixkat or igaro ta  
ortikan Txina aldera;  
siñismeneko fede sutsua  
beti eraman aurrera,  
ordu onean bukatu dedin  
artu zenduen karrera.
- 7/ Bildurgarria izango da an  
txino gaiztoaren otsa,  
gorrotuaren indarrarekin  
begiratua zorrotza;  
gau eta egun Jesusengana  
jaso dezazu biotza,  
erru gabeko Zeruko Amak  
egingo dizu laguntza.
- 8/ Zeorren gogoz egin zenduen  
Txina aldera bisita,  
aitak eta amak ori egiten  
etzizun galerazi-ta;  
bakiñat bier egongo ziñan  
zeure biziaz etsita,  
mundu ontako ontasun danak  
alde batera utzita.

9/ Esan didazu bazuazela  
berriz e aiek ikustera, (1)  
penitentzia batzuk egiñaz  
zerua irabaztera;  
Goiko Jaunaren laguntzarekin  
etorri zaitez ostera,  
jaio ziñaden lur maite ontan  
zeure ezurak uztera.

10/ Egia pranko ipiñi dizut  
nai badituzu siñistu,  
deseo ori dadukan batek (2)  
penarik artuko eztu;  
Txina aldera oitura onetan  
nai dezun ainbat jolastu,  
baño, illoba, Euskalerriaz  
beñere etzaitez aiztu.

Zure osaba: Eusebio Txapel  
(31/VII/1958)

---

(1) Paperean: *ere*.

(2) Paperean: *daukan*.



## «NAI BADEZUTE SALBATUKO DA...»

Aldi batez, bertso batzuk botatzeko eskatu zioten Txapel zanari, bertso-saio babatean.

Berak onela galdetu zuan:

—Zeri bota?

—Zure bizi-moduari edo... —erantzun zioten.

Ta onoko sei bertso auek kantatu zituan:

- 1/ Bertso batzuek eskatze'ituzu nere bizi-moduan gain, eztakit naizen iñola ere lan orretarako lain. Mutil gaztia izan nintzaden ustez jator bezin lirain, urtien mende ementxe nago guztiz aitonduta orain.

2/ Bizi guztian burutapen bat  
izan det danen gañetik:  
gure euskera salbatu naia  
iltzen zegoen unetik.  
Orrek zigorrak ekarri dizkit,  
eztaukat ordea penik,  
euskera bizi dedilla eta  
guztia dago egiñik.

3/ Etsai gaiztuak ito nai zuten  
euskaldunaren odola,  
sinista zazu oraindik ere  
penaz beterik nagola.  
Pena da baña seme gaiztuak  
etzuten maite kaiola,  
oraindik ere zutik ordea  
Gernika'n gure arbola.

4/ Euskera ama gaixua ezta  
iltzen ain erreza izan,  
bere lurrean lotsa izan da  
arrotz gaiztuaren gisan.  
Pena larri au astuna dezu  
maite dunaren bizitzan,  
gure Jainkoak eztu galduko  
inoiz bere eskutikan.

5/ Bizi-modua esan didazu  
gaurko bertso-gai bezela,  
eta badakit bide ortatik  
oso aparte naizela.  
Pentsamentuak ortaratzen nau,  
ezin ziteken bestela...  
Nere ama dan izkuntz aurrean  
erantzi nai det txapela...

6/ Urteak ere aurrera eta  
nekatua det burua,  
bein ontaraño ezkerro oi da  
etorri oso juxtua.  
Gaizki esanak barkatu beintzat,  
agur Euskalerra osua,  
nai badezute salbatuko da  
gure euskera gaixua!

(1960)

## SEMEAREN KALIZA

Txapelen seme batek, Migelek, 1960'garren urtean eman zuan meza.

Aurreko gabon-bakazioetara etorri zanean eta meza emateko gauzak prestatzen asi zanean, etxeakoak erabaki zuten, egunero aldarean erabilli bear zuan gauzarik ederrena, kaliza alegia, berak bakarrik ekarri bear zutela.

Ala egin zuten, eta aitak, eskeintza bezela, bertso au ezarri zion kalizari:

Meza ematera eldu zait  
seme gaztiena,  
juan dan aspaldian  
nai zendukiena!  
Itxaropena badu  
Jainkoagana,  
argatik emate'izut  
gauzik ederrena,  
zeorren sendi danok  
egin dizuguna...

## «UTZI'AZUTE PAKIAN»

Loiola'ko erri-irradiaren bertso-txapelketa baten ondoren, bertsolariak Loiola'ra joan ziran bazkaitara, eta, oi dutenez, bertsotan asi ziran bazkalondoan.

Zazpi bertsolari gazte ziran: Azpillaga, Basakarte, Etxeberria, Goiburu, Beloki, Gabilondo ta Istinge.

Bertso ederrik pranko bota zuten. Janari eskerrak, magnetofon bat dana artzen jardun zan.

Bertsolari gazteen artean, Txapel bertsolari zarra ere an zan. Ta nunbait ere tentatu zuten gazteak eta bertso au kantatu zuan:

Irurogei ta beatzi urte  
igaro ditut nekian,  
makiñatxo bat bertso botiaz  
izan naizan parajian;  
olako gabe oraingo abiya  
errez konpondu zeikian,  
gazteak naikua bazaudek eta  
utzi'azute pakian.

Bazkalondo artan etzuan Txapelek bertsorik geiago kantatu.

(1963)

«ORAIN ETA BETI ANAI» (1)

1963'garren urteko Maiatzaren 28'an, Azpeiti'ko *Zelaitxo*'n, Loiola'ko erri-irratia urtero antolatzen duan bertsolari gazteen txapelketaren azkena ospatu zan. Txapel, Jesus Lete «Ibai-ertz», Artañola zana ta Aita Goikoetxea ziran juraduan.

Txapeli, jaia amaitzeko momentuan, bertso batzuek eskatu genizkion. Eta iru auek bota zituan:

Nere buruaz lotsatu neike  
orain nagoen trantzian,  
memoria ezta ain argi izaten  
bat orrela aitontzian...  
Baña esan dit Iriondo onek  
asi nadilla lanian,  
bertsolarien txapelketa au  
amaitzen dan egunian.

---

(1) Adierazpena ta bertsoak, Loiola'ko Jose Mari Iriondo'k bialduak.

Urtien pixuz ementxe nago  
igarturikan arbola,  
baña sinistu pozez txorätzen  
zuen aurrean nagola.  
Kimu berriak badatoz-eta  
berritua da odola,  
segi aurrera, gazte maiteak,  
eta segi zu, Loiola!

Ez nago luze jarduteko ni,  
etzaituztet aspertu nai,  
agur bero bat emen zaudeten  
eta entzuten daudenai...  
Izan zaitetze urte askoan  
zorioneko ta alai,  
euskaldun jator zintzo bezela  
orain eta beti anai!

## «MUTILL ORREN IZENIAN»

1963'garren urteko Santa Agedaren bezperan, «*Coro de Cámara de Radio Popular Loyola*» deritzan kantari-taldea Azpeiti'ko kaleetan barrena bertso auk kantatuaz ibilli zan.

Taldeko lagun batentzat zerbait bildunaiean zebiltzan.

Lagun ori Jose Mari Galdos zeritzan. Emezortzi urte besterik etzuan eta min biziarekin zegoan. Gizagajoa andik denbora asko gabe il zan.

Azpeiti'ko erria esku-zabal portatu zan.

Bertsoak paratzeko Txapeli eskatu zioten, eta bai onek gustora ta gogoz jarri ere.

Makinaz idatzitako orri batetik artu ditugu guk. Orri ori Txapelen seme Migelk eman digu.



- 1/ Lenago ondo ez dakitenai  
nola dan erakustera,  
orregatikan aldatzen gera  
toki batetik bestera;  
geu eta geure entzunlariak  
gelditziâtik gustora,  
saiauko gera, ai, aspaldiko  
oitura onari eustera.
- 2/ Azpeitia'ko abeslari bat  
dadukagu gaixorikan,  
sendatzeko're apenas berriz  
daukan itxaropenikan;  
uste etzuen gauza txarren bat  
sortu zako ankatikan,  
sasoi ortako mutilla egonda  
ezin ibilli zutikan!
- 3/ Orain emezortzi urte inguru  
mundu ontara etorria,  
orain zabaldu biar genduke  
mutiko orren berria:  
anka daduka gaitz txar batekin  
ondo-ezian jarria,  
sendatutzeko itxurarik ez,  
ori da penagarria!

4/ Aita eta ama, anai ta arreba,  
jartzian aldamenian,  
negar samiñak ertengo zaizke  
biotzaren barrenian;  
ia osterá gelditutzen dan  
len zuen osasunian,  
limosna onak eman zatzute  
mutill orren izenian!

## BERRIRO

1/ Aldi batzutan asko gerade  
ola aritzen geranak,  
oain e ontara balantzatu nau  
ixillik ezin egonak;  
eztiran gauzak esaterikan  
eztit agintzen barrenak,  
entzulariok, zuentzat datoz  
zorionik beruenak.

2/ Olerki batzuk abestutzeko  
neri didate agindu,  
obe genduen lan au ôin baño  
lenago egin bagendu;  
ôin urte bete pasa onetan,  
enaiz kontentu egondu,  
lenago baietz esandakoak  
eztute asko lagundu.

3/ Urte betian izandu degu  
imisoria itxita,  
izandu degun kaltiarekin  
ez nago ondo iritzita;  
txoriak kantari asten dira  
goizian oitik jaikita,  
zeñek eluke ori egingo  
gogua danok eukita?

4/ Ikusi degu nolakua dan  
egiten zuen faltia,  
lenago ezer etzekitenak  
komeni da jakitia;  
bakiña bati gustatzen zaigu  
gure irrati maitia,  
onegatikan zabaldu dute  
imisorako atia.

5/ Juan daneko aspaldietan  
oiean gaxo daudenak,  
oiez gañera sukaldetako  
amonak eta aitonak,  
imisoraren bitartez otoi  
egiten aitzen ziranak,  
gaur zorionez poztu ditezke  
zarrak eta gazte danak.

6/ Goiz-partetikan aritzen ziran  
meza santua entzuten,  
ondorenian abestiaren  
faltik izaten etzuten,  
galdetutako itz guztiari  
deboziaz erantzuten,  
esanaz ia bizi guzian  
ala izango al zuten.

7/ Penaz ta miñez pasatze'ituzte  
gau eta egun osuak,  
onegatikan eiten zituzten  
otoi edo errezuak,  
Goiko Jaunari laguntza eske  
zabaldurikan besuak;  
zerbaiten poza ez al du bear  
oian dagan gaixuak?

8/ Imisoria itxi zanian  
penaz gelditu giñan-da,  
azkeneraño ze izango zan  
dana sinistu ezinda;  
alai ta pozez ibiltzen giñan  
noranaitara juanda,  
bertsolarien arnas-biria  
imisoratik sortzen da.

9/ Gertatu zanai, egia esan,  
eztiot ondo iritzi,  
leno genduen oitura onari  
bear gionduke eutsi;  
guk geure mende ez al genduke  
bear oinbeste erentzi?  
Gazte maiteak, esate'izutet  
bertso-lanari ez utzi!

(1968)

AITA SANTUARI  
TA SIZILIA'KO LUR-IKARARI

1968'gn. urte zar gabez Loiola'ko Irratiak egin zuan saiorako, urteko amabi gertakizun aundienetatik bi, Aita Santuaren Colombia'rako joan-etorria ta Sizilia'ko lur-ikara, eman zizkioten gai bezela Txapel bertsolariari.

- 1/ Kristau guztion Aita deguna  
Colombia'ra bidean,  
ango pobre ta aberats danak  
bedeinkatzeko idean;  
zer gertatzen zan ikusi nai zun  
urrutiako lurrean,  
lezio on bat eman diguzu  
gaur, sarritako antzean.
  
- 2/ Beartsu eta nekazariak  
lelengo bendizioa,  
entzun dedanez antxe omen zan  
zeruko debozioa;

eskertzen degu, Jainko-ordeko,  
eman dezun lezioa,  
segi orrela ongi beteaz  
lurreko goi-ofizioa. (1)

\* \* \*

1/ Egun batian arrotzen gera  
nik eztakit zergatikan,  
samiña laster etortzen zaigu  
andik edo emendikan;  
Sizilia'ko lur-ikariak  
nauka gaur bildurturikan,  
urruti xamar gertatu arren  
gaude kezka bezalakerik.

2/ Batzuek il da, etxerik gabe  
gelditu dira bestiak,  
ixtillu batên ibilli dira  
aita, ama ta semiak;  
izugarritzko txikiziuak,  
alkar jo dute mendiak...  
Zeruko Jaunak libra gaitzala  
eskatzen du koplariak! (2)

---

(1) Loiola'ko Jose Mari Iriondo'k bialdutako bertsok.

(2) Loiola'ko Jose Mari Iriondo'k bialdutako bertsok.

**TXAPELEN OMENEZ**



## ILLETAN

Len esan danez, Txapel 1969'ngo Maiazaren lenengo egunean il zan, irurogei ta amabost urte zituala.

Illetara bildu ziran bertsolariak, onako bertso auek kantatu zituzten mezetan, eskeintza-denboran:

### *Basarrik:*

Indar berezia du  
bataio-ponteak,  
antxen gelditzen gera  
grazitan beteak,  
an du bere sustraia  
kristau izateak;  
alargun utzi gaitu  
lagun zar maiteak,  
Jauna, zabal zaizkazu  
zeruko atea.

### *Gorrotxategi'k:*

Zure Jaun-artzez zure barrena  
zendun indarrez betea,  
ezin liteke zuri betiko  
emen agur esatea;  
lengo bertsolai zar guziekin  
goian atsedean zaitea,  
ta azken egun aundira arte  
agur, lagun zar maitea!

*Lazkano'k:*

Denok dakigu gizona ez dala  
ez iltzekotan egiña,  
azkenerako bakoitzak dauka  
bukaera bat berdiña;  
bañan badago justuentzako  
azken gabeko jardiña,  
Zeruko Aita, ildako danei  
eman zure atsegiña.

*Lizaso'k:*

Zeruko Jaunarengana (1)  
badegu itxaropena:  
illagatikan egunen baten  
berriz piztuko gerana;  
bizi geranoi eman zaiguzu  
pakea ta atsedena.

*Agirre'k:*

Gaurtik aurrera seme jator bat  
falta du Euskalerriyak,  
negar-malkoak jaulki dizkigu  
zabaldu zaigun berriyak;  
bere animaren alde otoizka  
emen gera etorriyak,  
zeru goi artan atsegin dezan  
lagun zar bertsolariyak.

---

(1) Doñua: "Uso zuria..."

## TXAPEL ZANARI (1)

Maiatzaren bigarren eguna zan: ostirala.

Azpeiti'ko eleiz nagusian «Txapel» bertsolari zanaren illetak.

Txapel bertsolaria 75 urtetan itzali zai-gu.

Bertako jendea arriturik zegon bildu zan jendetza ikusita. Gutxitan ezagutu omen dira alako eleizkizunak Azpeiti'n.

Benetako kristaua zan Txapel. Guraso zuzen, lagunartean atsegiña. Argatik maite zuten ezagutzen zuten guziak.

Geiegikeririk etzun maite jan-edanean; erretiro txarrik ere ez.

Amaika erri ta errixka alaitua zan bere koñadu «Zepai» aldamenen zula. Urte mordo batean asko ibili ziran alkarrekin Txapel eta Zepai.

---

(1) Basarriren idaz-lana, "La Voz de España", 1969/V/4, ta "Zeruko Argia", 1969/V/18.

Txapel'ek etzun Zepai'k bezelako ezta-  
rria. Ondotxoz apalagoa zan bozez.

Baña, artutako gaiari zuzen segitzen  
zion bertsolaria zan; zuzena, arikoa, za-  
balera gutxikoa.

Loiola'ko Irratiak urtero antolatzen di-  
tu bertsolari leiaketak. Zuzendari ibiltzen  
zan Txapel. Ala ibili da aurten ere, egun  
gutxi bitarte.

Osasunez gañezka zebillela zirudin Txa-  
pel'ek. Ari begiratuta iñork etzizkion  
emango 75 urte. Gazteagoa zirudin ondo-  
txoz.

Alkarkako meza izan zan Azpeiti'n,  
amar-amabi apaiz aldarean zirala.

Bertsolariaren seme, D. Migel Eizmen-  
di, meza-emale.

Eskeintza denboran, ofertorio denbo-  
ran, Lizaso, Agirre, Lazkano, Gorrotxate-  
gi, ta zuen serbitzari onek, bertso bana  
kantatu gendun.

Eleizkizun ukigarria benetan Txapel  
zanaren animari eskeñia!

\* \* \*

Garaia izan eta  
zugaitzak loratu,  
lengo urretxindorrak  
ez digu kantatu.  
Udaberri betean  
au nola gertatu?  
Txori abeslaria  
betiko mututu!

Zer gerta zaio aurten  
Udaberriari?  
Txapel, nolatan utzi  
zuk utsune ori?  
Nunbait bere ondoan  
nai zaitu kantari,  
ezetzik ezin esan  
Jaunaren deiari.

Zure ixiltasunak  
goibel utzi gaitu,  
baña, txori gazteok,  
zuek ez erdoitu.  
Bertso ta kantu goxoz  
bazterrak alaitu,  
ark utzi du bidea,  
nai dunak jarraitu.

Ar zazu atsedena,  
merezi baitezuz,  
emengo kantu lana  
bukatua dezu.  
Lengo lagun zarren zai  
egongo zera zu,  
aurki arte, lagun zar,  
laister or gaituzu!

## «GURE LAGUN ZAR BIOTZEKO»

Gorrotxategi ta Etxeberria bertsolaria, Azkoitia'ko *Cine Baztartxo*'n, onako bertso auek kantatu zituzten, andik egun gutxitara, Txapel zanaren oroigarritzat:

G. Urte onetan izan ditugu  
neurri gabeko kalteak,  
gure lagun zar biotzekoa  
gure artetik joateak;  
sei bertsolari ori dala-ta  
datoz gaur lutoz beteak,  
Jainko altsua iriki'yozu  
zorioneko atea.

E. Bertsolariyak zure animai  
eman nai diyou bultzea,  
ta ez genduke nai zu gure paltaz  
beti-betiko galtzea;  
ai, lagun maite, zintzua eta  
jatorra izandu zea,  
bertsoz otoitza egite'izugu  
baldin premiyan bazea.

G. Zuk piztu zendun biotz-barrutan  
izugarrizko su-garra,  
ta euskerari eman zenion  
berdin gabeko indarra;  
juan zera, Txapel biotzekua,  
bagendun zure bearra,  
Jaungoikuari esan bertsoan  
Euskalerriko negarra.

E. Txapel maitea, eman diguzu  
ez dakit zenbat atsegin,  
ta aitzen ordu estu orretan  
beste mundura aldegin;  
bañan gauza bat eskatzen dizut,  
egingo dirazu berdin:  
zeruan ere, ai nere Txapel,  
beti euskeraz itzegin!

G. Mundu ontako eginkizunak  
zuk dituzu ondo bete,  
Jaungoikoaren onean illa  
or gauz txarrik ez da bate;  
zuk ereindako bertso sakonak  
lore berria dakarte,  
zure izenik ez da galduko  
euskeraz bizi dan arte.



*E.* Ai, nere Txapel, berriro nator  
ain sentimentu beruan,  
ikusten nago premi aundiya  
izango deula geruan;  
ta euskera ta Euskalerriyen  
kargua ortik eruan,  
gu ere laixter juango gera ta  
itxaron zazu zeruan.

## IRU ALDI (1)

Iru aldi ezagutu ditut bertsoaritzan.

Amar bat urte izango nitun nik lenen-  
goz «Txapel» zana kantatzen somatu nu-  
nean.

Bi autobus joan giñan Azpeiti'ko Loio-  
la ikusteko asmoz Zarautz'tik, eskola-  
-umez beterik.

Arratsaldeko bostak inguruan, bi ber-  
tsolari azaldu ziran Loiola konbentuko  
balkoi bitan. Sarrerako eskalleraren ez-  
ker aldetik dauden balkoitan, ain zuzen.

Bat, Itziar'ko Zubeltzu, Jaunari esker  
oraindik bizi dana. Bestea, Txapel zana,  
Errezil'go semea ta Azpeiti'n bizi zana.

Beste ume jendearentzat, edo mutil  
koskor jendearentzat, aien bertsoak etzu-  
te balorerik.

Ezpaizekiten bertsoa zer zan eta ber-  
tsolariak zer ziran.

---

(1) Basarriren idaz-lana, "La Voz de España",  
1969/XI/6.

Neretzat berriz, propio asita ere etze-  
gon pesta oberik antolatzerik.

Orduan nun nik bertsoarako egarria  
ta zaletasuna!

\* \* \*

Nik ezagututako lenen aldia, Txirrita,  
Gaztelu ta Prantzesak bete zuten.

Irurak ezagutu nitun, eta gerora, gutxi  
edo geiago, irurekin kantatzeko era izan  
nun.

Aiek il ziranean utsune bat gelditu zan.

Txapel eta Zepai, bi koñaduak, izan zi-  
ran utsune ura bete zutenak. Amaika al-  
diz egon nintzan gustora bieri entzuten,  
batean eta bestean.

1935'garren urtean kantatu nun lenen-  
goz Txapel eta Zepairekin.

Errezil'go Aiuntamentuak deituta joa-  
na nintzan urte artako San Martiñetan.

Iru bertsolariok, ain zuzen errezilda-  
rrak izaki.

Geroztik sarri samar alkartu izan gi-  
ñan an da emen.

\* \* \*

Txapel zana bertsolari zuzena zan.

Artzen zun gaiari sustraitik jarraitzen zion, bide galdurik egin gabe. Bete-lan gutxiko bertsolaria.

Plazetan bear ainbatean luzitu ezpazun, eztarri bajukoa zalako izan zan. Bozak etzion laguntzen beste batzuri bezela.

Garai artan etzan gaur bezelako tresnarik; etzan mikrofono ta altabozik, jendeari esan naiekoak adierazteko.

Norbere eztarriz baliatu bearra zegon.

Txapelen bertsoak, toki itxian eta gañeko jendea ixilik zegola entzutekoak ziran.

Orduan ateratzen zitzaien zuten sustantzi guzia.

Biar, Azpeiti'n, amaika bertsolari agertuko dira Txapel zanaren ondran kantatzera. (2)

Joan zan bizion artetik, baña guretzat bizi da oraindik.

---

(2) Etziran uste ziran guziak agertu.

## OMENALDIA

1969'gn. urteko Azaroaren 9'an omenaldi eder bat egin zitzaion Txapeli Azpeitia'n, *Salón Soreasu'n*, Donostia'ko C.A.T. alkarteak antolatuta.

Jaialdiaren bezpera-egunean, Azaroaren zortzigarren gabean, bertso auetxek kantatu zituan Basarrik Loiola irratia-aren bidez:

Bertso nereak, kanpoetara  
irten zaitezte barrendik,  
Txapel maitea, ondo dakigu,  
aldendu ziñan gugandik.  
Jaunak otsegin zizun garaian  
ezkuta ziñan emendik,  
baña sinistra zazu guretzat  
bizi zerala oraindik.

Txapel da Zepai, izen bi oiek,  
ni lilluratzen ninduten,  
triste zeudenak alaitzen zuek  
ederki zendekizuten.  
Gu gaztetxoak giñan artean  
ta biok sasoi zenduten,  
amaika bider gozatua naiz  
zuen bertsoak entzuten.

Egun batez zu ixildu ziñan,  
orain besteak kantari,  
seme zintzoak aitormen ona  
ematen dio aitari.

Zure gorantzan Azpeiti'n kantuz  
gaur zazpi bat bertsolari,  
zuk bein aldatu zendun arbolak  
ba-du frutua ugari.

Jendeak gogoz jarraitzen dio  
jarri zendun bide orri,  
egin zenduen guziagatik  
bai zerala txalogarri!  
Zure utsuna tristea baña  
ba-degu zerbait pozgarri:  
oraindik ere bizi dirala  
euskera ta Euskalerra.

\* \* \*

Basarri bera izan zan jaialdiaren zu-  
zendaria. Asierakoan bertso auek kanta-  
tu zituzten bertsolariak Txapelen ondran:

*Lizaso'k:*

Oso gazterik gelditu nitzan  
Jainkoak aita êmanik,  
ta Euxebio urbildu zaidan  
gizon jator bat izanik;  
agindu aiek bete gabe nik  
ezin ba utzi iñondik,  
sekulan enun pentsatu izan  
neronen aita etzanik.

*Lazkano'k:*

Euxebio zan gure aita ta  
gure lagunik aundiña,  
amaika aldiz gizon bezela  
gazteari itzegiña;  
gaur gauza batek ematen dit nei  
biotz-barrenean miña:  
jai-aldi eder au Euxebiori  
il baño len ez egiña.

*Agirre'k:*

Ni ere gazte nitzala egin  
nitzan Txapel zanen lagun,  
emen faltikan eit'etzulako  
etzan mundu ontatik jun;  
anai maiteak, gaur otoitz bana  
ia zuzentzen diogun,  
purgatoiuan balego ere  
zerura jaso dezagun.

*Xalbadorrek:*

Txapel zan ori etzan agertu  
ene begien argira,  
ni emen asi baño lenago  
egin baitzun erretira;  
bainan egun nola dagoen  
zerutik guri begira,  
lagun guziak gida gaitzala  
bera dagoen tokira.

### *Mattinek:*

Gaur Azpeiti'rat etorria naiz  
ni ere Txapel goguan,  
ta pentsaketa egotua naiz  
nere lagunen onduan:  
ezagutzeko zorionikan  
nik eztut izan munduan,  
bainan desira nik egun batez  
ezagutzia zeruan.

### *Uztapide'k:*

Euxebiokin igaro nitun  
amaika egun atsegin,  
pena da baño ezin nezake  
gaur berarekiñ itzezin,  
besterik ezin liteke orain:  
otoitz labur bana egin,  
bere anima, komeni bada,  
zeruan gertatu dedin.

### *Gorrotxategi'k:*


Bere denboran bota zituan  
amaika bertso biribil,  
gure artetik jua zan baño  
gure ezpañetan dabil;  
utziagatik Azpeiti eta  
utziagatik Errexil,  
bere maiteak geranontzako  
Txapel oraindik ez da il.



## ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. *R. Artola*: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. *M. Soroa*: Gabon, au ostatuba!, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. *F. Apalategi*: Euskal mutillak armetan, I.
4. *Pepe Artola*: Ustez laguna detan.
5. *P. M. Urruzuno*: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. *T. Alzaga*: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. *R. Azkarate*: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. *A. Apaolaza*: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. *B. Iraola*: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. *P. Larzabal*: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. *Bilintx*: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. *M. Izeta*: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. *P. Larzabal*: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. *A. M.<sup>a</sup> Zabala*: Gabon gau bat.
17. *A. M.<sup>a</sup> Labayen*: Malentxo alargun!
- 18-19. *A. Zavala*: Txirrita. (*Aitua*).
20. *F. Goñi*: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. *P. Larzabal*: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. *F. Imaz*: Bertso guziak.
25. *A. P. Iturriaga*: Jolasak.
26. *A. M.<sup>a</sup> Zabala*, *A. Larraitz*, *Mir*: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. *B. A. Mogel*: Ipui onak.
29. *T. Alzaga*: Burruntziya.
30. *G. Anduaga*: Egunsentiko txoria.
31. *M. Soroa*: Baratzan.
32. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui*, *A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverriá*: Neronek tirako nizkin.
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.

- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsolaria.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsolaria.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsolaria.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsolaria.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsolaria.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsolaria.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
84. *M. Matxain*: Uste gabea.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.



AUSPOA  
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA